

SARIETARA AURKEZ DAITEZKEENAK

SARIA: “SORMENA ETA ERABERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ENPRESAN”

Enpresa edo tailer sendotuak aurkez daitezke, berrikuntza teknologiko batean oinarritutako produktu edo prozesu berri bat sortzekotan edo garatzekotan daudenak. Beraz, proiektua, ez bakarrik enpresa berri bat sortzekoa, lehendik dagoen enpresa baten egindako berrikuntza handiren bati buruzkoa edo dibertsifikazioari buruzkoa ere izan daiteke.

SARIA: “ENPRESA ASMOAK”

Euskal Herrian jaiotako edo bertan bizi diren enpresa bultzatzaileak aurkez daitezke, banakoak edo taldean, enpresa-ekimen berrietarako asmo bideragarriak aurkeztu eta asmo hori martxan jartzeko prest daudenak.

Sustatzaile bakarrak edo sustatzaile-talde batek sortutako enpresa jaiotako berriak –gehien jota, urte bi- lantegia finkatzeko edo/eta heltzeko sariaren euskarria beharrezkoa dutenak. Mikroenpresen baldintzak betetzen dituzten enpresa berriak ere sailkapen honetan sartuko dira; hau da, urteko fakturazioa 2M euro baino gutxiagokoa izan eta 10 lanpostutik gora ez dituztenak.

ARGIBIDEAK:

BIC GIPUZKOA BERRILANek ondoko helbide honetan emango ditu sariaren inguruko edozein kontsultaren inguruko argibideak:

Azitaingo Industrialdea 3, 2. eraikina – 2. solairua.

20600 EIBAR (Gipuzkoa).

Telefonoa: 943.820 606

Miramoneko Parke Teknologikoa. Mikeletegi pasealekua, 56 - B8 eraikina. 1. Solairua.

20009 DONOSTIA (Gipuzkoa).

Telefonoa: 943.000 999

Harremanetarako pertsona: Laura Espin

e-maila: techevarria@bicberrilan.com

Sariari buruzko agiri guztiak (Oinarriak, galdetegiak, izenak emateko orriak edo buletinak) www.bicberrilan.com webgunean bertan daude (“Sariak” atalean)

Agiriak aurkezteko azken eguna 2004ko urriaren 15a izango da.

AZKEN URTEETAKO IRABAZLEAK

2002	REYDESA RECYCLING, S.A. DISSMOFI 2000, S.R.L. ELEKA INGENIERITZA LINGUISTIKOA, S.L. MOLDES PROTOTIPOS INYECCIÓN.
2003	JAZ ZUBIAURRE, S.A. DRO. Producción de Vectores Génicos. XMADINA Tecnología Adaptativa, S.L. LANDER SIMULATION&TRAINING SOLUTIONS. THE MOVIE VIRTUAL, S.L.

SARIAK

“SORMENA ETA ERABERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ENPRESAN”

1.go Saria

- **BEDERATZI MILA** euro dirutan (**9.000**), EIBARKO UDALArena.
- **HOGIETA HAMAR MILA** euroraino (**30.0000**), teknologia alorrean BIC GIPUZKOA BERRILANek ematen duen saria, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean aukeratutako Zentro baten garapen teknologikoan sartuko diren orduei dagokiena.
- **BEDERATZI MILA** euroraino (**9.000**), BIC GIPUZKOA BERRILANen aholkularitzari dirutan dagokion saria.

2. Saria

- **SEI MILA** euro dirutan (**6.000**) EIBARKO UDALArena.
- **SEI MILA** euroraino (**6.000**), BIC GIPUZKOA BERRILANen aholkularitzari dirutan dagokion saria.

“ENPRESA ASMOAK”

1.go Saria

- **SEI MILA** euro dirutan (**6.000**) EIBARKO UDALArena.
- **HEMEZORTZI MILA** euroraino (**18.000**), teknologia alorrean BIC GIPUZKOA BERRILANek ematen duen saria, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean aukeratutako Zentro baten garapen teknologikoan sartuko diren orduei dagokiena.
- **BEDERATZI MILA** euroraino (**9.000**), BIC GIPUZKOA BERRILANen aholkularitzari dirutan dagokion saria.

2. Saria

- **HIRU MILA** euro dirutan (**3.000**), EIBARKO UDALArena.
- **SEI MILA** euroraino (**6.000**), BIC GIPUZKOA BERRILANen aholkularitzari dirutan dagokion saria.

Teknologia alorreko saria eman eta irabazleek gauzatzeko utziko balute, beste proposamen bati emateko aukera aztertuko litzateke.

Sari bien irabazleek **APD**ren saria jasoko dute, Bilbon antolatutako mintegi eta ikastaro guztietara urtebetez doan joateko saria; Madrilen eta Bartzelonan antolatutakoetan bazkideek ordaintzen dutena ordainduta joateko aukera.

Asmo edo proiektu finalistek, **KUTXA**k sariaren esku jartzen duen finantzaketa-bidean sartzeko eskubidea izango dute, gehienez ere **150.000 euro** eragiketa bakoitzeko, sariren bat jaso duten edo ez kontuan hartzeke.